

# INGURUMEN- KOIUNTURA EUSKADI 2024





**Ihobe, 2025eko urtarrila**

**ARGITARATZAILEA**

**Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa**

Industria, Trantsizio Energetiko

eta Jasangarritasun Saila

Eusko Jaurlaritza

Urkixo zumarkalea 36, 6. solairua

48011 Bilbo

[www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus) • [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

Tel.: 94 423 07 43

---

Testuingurua	3
Klima-aldaketa	4
Ura	5
Airea	6
Lurzoruak	7
Biodibertsitatea	8
Ekonomia zirkularra	9
Hondakinak	10
Ekonomia eta ingurumena	11
Herritarrak eta ingurumena	12
Ondorioak	13

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 13. artikuluan jasotzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak ingurumenaren egoerari buruzko koiuntura-txostena egin eta argitaratuko du urtero-urtero, eta lau urtean behin, txosten osoa. Txosten horietan, ingurumenaren kalitateari eta horrek jasaten dituen presioei buruzko datuak jasoko dira, lurzoruaren artifizializazioa ere aintzat hartuta, bai eta jendearentzat ulergarria den laborpen ez-teknikoa ere.

Horregatik, txosten honen helburua da euskal lurraldeko ingurumenaren kalitatearen ideia sintetikoa eta ikusizkoa osatzen ahalbidetzen duten ingurumen-adierazleen informazioa biltzea eta horiek aztertzea.

Azterlana 9 ingurumen-gaitan banatzen da; esan behar da gai horiek hautatu direla Europako Ingurumen Agentziak eman dituen ingurumen-bektoreak erreferentziatzen hartuta eta Euskadiko testuinguru sozioekonomikora egokituta.

Gai bakoitzaren bilakaera eta aurrerapena ebaluatzeko, ingurumen-adierazle nagusien bilakaera aztertu da, bai Europako Ingurumen Agentziarena, bai Eurostatena (Europar Batasuneko Estatistika Bulegoa), eta Euskadik bete beharko lituzkeen helburuekiko tartea islatu da, baldin eta halakorik badago.

Funtsean, adierazleak Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-estatistiketatik datoz (Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saila eta Eustat, Euskal Estatistika Erakundea). Txosten hau idatzi den datan argitaratuta dauden azken datuak aintzat hartu dira.

Ihobek, Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-arloko sozietate publikoak, koordinatu du txostena; izan ere, Ihoberen eginkizunen artean dago Euskadiko ingurumenaren bilakaeraren aurrerapen eta erronka garrantzitsuenen berri ematea gizarteari, modu erraz eta ulergarrian.

Informazio guztia esteka honetan dago eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/ingurumena/>


# Klima-aldaketa

## 2005az geroztik, % 33 murriztu dira BEG isurpenak

Esparru horretan, funtsezkoa da Euskadiko Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legea aipatzea, 2050. urtean, berotegi-efektuko gasen isuri garbien zero maila lortzea helburu duena.

2023an, Euskadik 17 milioi tona BEG isuri zituen, hau da, % 33 murriztu dira isuriak 2005eko oinarri-urtearekin alderatuta. Beraz, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Euskal Legeak 2030. urterako ezarri duen helburua erdiesteko bidean gaude.


### Berotegi-efektuko gasen guztizko isurien bilakaera-indizea 2005-2023



1/2024 Legearen 23. artikulua xedatzen duenez, 2030ean, energia berriztagarriek azken energia-kontsumoan izan behar duten partaidetza % 32koa izango da, gutxienez, baina ehuneko hori gorantz berrikusi ahalko da, EBk edo estatuak ezarritako helburuekin bat etorritik.

Azken hamarkadan, energia berriztagarriek guztizko energia-kontsumoaren gainean duten kuota % 11,7 igo da Euskadin, eta 2023an % 20,4koa izan da; hortaz, goranzko joera berreskuratu du bioerregaien, eguzki-energia fotovoltaikoaren, eguzki-energia termikoaren, aerotermiaren eta geotermiaren gorakadari esker.

### Energia berriztagarrien kuota energiaren azken kontsumoan 2005-2023




## Ur-masen egoera egonkorra izan da azken urteetan

Ur-masak ebaluazio- eta kudeaketa-unitateak dira, ingurumen-helburuak horien gainean ezartzen dira eta helburuon betetze-maila ebaluatzen da. Euskadin, lurpeko 36 ur-masa eta azaleko 167 ur-masa identifikatu dira (128 ibai, 21 aintzira eta urtegi, 14 estuario eta kostaldeko 4 ur-masa).

Ur-masen egoera onaren bilakaera egokia da, baina motela.

Gaur egun, azaleko ur-masen % 49 eta lurpeko ur-masen % 89 egoera onean daude. Azaleko ur-masei gagozkiela, gehienetan, ez da egoera ona ateratzen, egoera ekologikoari lotutako ingurumen-helburuak betetzen ez direlako, eta lurpeko ur-masei dagokienez, egoera kimikoari lotutakoak.


### Azaleko ur-masen egoera orokorra 2015-2023



Azaleko uren barruan, kostaldeko ur-masak eta urtegiak egoera onean daude, oro har. 2023an, halakoen ur-masen % 100 eta % 90 egoera onean zeudela diagnostikatu zen, hurrenez hurren.

Ibaien eta estuarioen egoera, ordea, ez da hain ona: 2023an, halakoen ur-masen % 43 eta % 57 egoera onean zeuden, hurrenez hurren. Azkenik, aintzira eta hezeguneen herena baino ez zen egoera onean egon 2023an.

### Lurpeko ur-masen egoera orokorra 2015-2023




## Airearen kalitatea hobetuz doa

Euskadin, isuri kutsatzaileak behera doaz eta, airearen kalitatea, berriz, gora. Airearen kalitatea dugu aireko ingurunearen egoera, substantzia kutsatzailerik dagoen kontuan hartuta.

2023an, egunen % 91 inguruk airearen kalitate 'ona' edo 'oso ona' izan zuten, % 6k 'hobe daitezkeen' kalitatea eta % 3ek 'txarra' eta 'oso txarra'.

### Airearen kalitatearen indizea 2014- 2023




Airearen kutsaduraren eraginpean dagoen hiriko biztanleriaren indizeak partikula xeheen (PM10) urteko batez besteko kontzentrazioa haztatua neurtzen du. Hau da, 10 mikrometro (mikra) baino diametroa txikiagoa duten partikulen kontzentrazioa, hiriko populazioa horren eraginpean egon daitekeelarik.

Hori horrela, Europako Zuzentarauak airearen kalitatearen gainean ezarritako helburuaren azpitik dago ( $20 \mu\text{gr}/\text{m}^3$ ).

Partikulen (PM10) urteko batez besteko kontzentrazioa  $15,4 \mu\text{gr}/\text{m}^3$ -koa izan zen 2023an, 2012tik hona % 26 jaitsi eta gero.

Datozen urteei begira, 2030. urterako Euskadiko Airearen Kalitate Planak urteko batez bestekoa  $20 \mu\text{gr}/\text{m}^3$ -tik gorakoa ez izatea proposatzen du neurketa-gune guztietan, eta  $15 \mu\text{gr}/\text{m}^3$ -tik gorakoa ez izatea, gutxienez, guneen erdian.

### Airearen kutsaduraren eraginpean dagoen hiriko biztanleriaren indizea 2012-2023




## 1.465 hektarea lurzoru kutsatu berreskuratu dira

2030. urterako Euskadiko Lurzorua Babesteko Estrategiaren helburua da kutsatutako lurzoruak berreskuratzeko aurrerapen nabarmena lortzea, eta 2050. urtean, helburua da lurzoruaren kutsadura murriztea giza osasunerako eta ekosistema naturaletarako kaltegarriak ez diren mailetara.

2000. urteaz geroztik, Euskadin inbentariatu diren eta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen 9.114 hektareako azaleraren % 16 berreskuratu dira erabilera berrietan baliatzeko, 1.584 gune kutsatutan.


### Kutsatuta egon daitezkeen eta erabilera berrietarako berreskuratu diren lurzoruen azalera 2010-2022



2010etik 2016ra, lurzoru artifiziala lurzoru naturala ordeztzeko erritmoa apur bat da. Hala ere, ehuneko hori egonkorra izan da ondoko urteetan, % 6,8 ingurukoa. Datu hori Europako gainerako herrialdeetan zigilatu den lurzoruaren ehunekoarekin alderatzen bada,

Euskadik Europako batez bestekoa gaintzen du (% 1,81), eta Herbehereak (% 7,33) edo Belgikak (% 7,37) duten antzeko ehunekoa dago gurean, azkenek ere biztanleria-dentsitate handia dutela.

### Lurzoruaren artifizializazioaren bilakaera 2010-2023






## Euskal lurraldearen % 23 Natura 2000 Sarearen bidez babestuta dago

Europako Natura 2000 Sarea funtsezko apustua da Europako biodibertsitate-politikan. Sare hori, neurri handi batean, Europako lehorreko eta ibaiko habitatak babesteko osatu da, eta nahitaez bete beharreko araudi eta neurri batzuk ditu atxikita.

Euskadik Natura 2000 Sareak babestutako 55 eremu ditu, guztira 1.659 km<sup>2</sup>-ko azalera dutenak, hau da, azalera osoaren % 23 (EB, % 18,6). Horrez gain, badira Euskadiko Natura Ondareari buruzko 9/2021 Legeak jasotako beste babes-tresna batzuk.


### Babestutako eremuen kopuruaren bilakaera 2012-2018



Euskadik, 2030eko Biodibertsitate Estrategia erabiliz, azpiegitura berdearen bidez hiri-biodibertsitatea sustatzeko neurriak proposatu ditu, herritarren ikuspegitik helduta.

Nekazaritza-inguruneen lotutako hegaztien populazioak % 37 egin du behera, 1998ko datuekin alderatuta. Aitzitik, baso-eremuetako eta hiri-eremuetako hegaztien populazioak % 103 eta % 19 igo dira, hurrenez hurren.

### Hegazti arrunt ugaltzaileen indizearen bilakaera 1998-2020






# Ekonomia zirkularra

## Materialen kontsumoa beheratu da biztanleko

Eusko Jaurlaritzak 2021eko urrian onartu zuen Euskadiko Ekonomia Zirkularren eta Bioekonomiaren 2024ko Plan Estrategikoa. Plan horren helburua, besteak beste, negozio-eredu zirkularragoak sortzea da, lehengaien kontsumoa eta hondakinen sorrera murriztuta.

2005. urteaz geroztik, materialen etxeko kontsumoa nabarmen jaitsi da; aldi horretan, 8 tona gutxiago sortzen dira biztanleko, Europar Batasuneko batz bestekoaren azpitik.


### Materialen etxeko kontsumoa biztanleko 2005- 2022



Materialen etxeko kontsumoak behera egin du, nahiz eta euskal ekonomiak gora egin duen.

Barne Produktu Gordinaren eta materialen etxeko kontsumoaren arteko erlazioa neurtzen duen produktibitate materialaren indizeak agerian uzten du hori.

### Produktibitate materialaren indizea 2005-2022




## 2018tik, zabortegian amaitzen diren hondakinak % 54 murriztu da

2003. urteaz geroztik hona Euskadin sortutako hiri-hondakinak bolumena % 4 murriztu da.

2022an sortutako 1.106.000 tonara jaistea lortu da. % 80 etxeko hondakinak izan ziran.


### Sortutako Hiri Hondakinak 2003-2022



Horrez gain, 2018tik, zabortegian amaitzen diren hondakinak % 54 murriztu da. Beraz, Euskadiko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030erako Planak ezarritako helburuaren bidean gaude, hau da, zabortegian amaitzen diren hondakinak % 15 baino gutxiagora murriztea.

2021az geroztik bideratu diren 31,2 milioi euroek lagundu dute murrizketa horretan, isuriak minimizatzeko eta hondakinak bigarren mailako material gisa berrerabil daitezela sustatzeko, ekonomia zirkularreko eta hondakinak prebentzioko eta kudeaketako proiektuak babestuz euskal enpresa eta administrazio publikoetan.

### Zabortegian amaitzen diren hondakinak 2018-2023






# Ekonomia eta ingurumena

## BPGd-ren eta ingurumen-adierazle nagusien indizeak ez datoz bat

BPGd-ren eta berotegi-efektuko gasen isurien arteko harremana funtsezko adierazlea da hazkunde ekonomikoaren ingurumen-jasangarritasuna ebaluatzeko. Adierazle hori funtsezkoa da garapen ekonomiko iraunkorra sustatzen duten politikak taxutzeko, ingurumen-inpaktua minimizatuz eta karbono-isuri txikiak darabiltzan

ekonomia sustatuz. 2005-2022 aldian, BPGd-a % 21 handitu da, eta berotegi-efektuko gasen isuriak, berriz, % 27 murriztu dira. Euskadik erabateko desakoplamendua du BPGd-ren eta ingurumen-adierazle nagusien artean, hau da, ekonomiak gora egin du eta ingurumen-inpaktuek, berriz, behera egin dute.

### BPGd-ren eta Berotegi Efectuko Gasen bilakaera 2005-2022




Ingurumen-zergak, ingurumen-izaeraren irizpidearen arabera, hiru kategoriatan sailkatzen dira: Energiaren gaineko zergak, Garraioaren gaineko zergak eta Kutsaduraren eta baliabideen gaineko zergak.

Euskadiko ingurumen-zergak 1.284 milioi

eurokoak izan ziren 2022an, hau da, zerga guztien % 6,7.

Fiskalitate berdea, BPGd-ren gaineko ingurumen-zergen ehuneko gisa neurtuta, % 1,5koa da Euskadin, hots, EB-27ko batez bestekoaren azpikoa (% 2).

### Ingurumen-zergak 2014-2022





# Herritarrak eta ingurumena


## Euskal herritarren % 76 kezkatu dago klima-aldaketa dela eta

Lehendakariak Soziologikoen Kabinetearen 2023ko azaroko ikerlanak aztertu zuen euskal gizarteak ingurumenarekin lotutako hainbat alderdiri buruz duen kezka-maila.

Prospekzio

Kasu honetan, ia euskal herritar guztiek nabarmendu zuten ingurumena garrantzitsua dela bizi-kalitatearen mailan. Gainera, 10 pertsonatik 9k uste dute beren erosketa-erabakiek eragin dezaketela enpresek modu arduratsuagoan ekoitzi dezaten.

**Ingurumenaren garrantzia bizi-kalitatean.** 2023an egindako inkestan, “Zein heinetan da garrantzitsua ingurumena bizi-kalitate ona izateko?” galderari emandako erantzunen %.




2024ko urrian argitaratutako ikerlanean, klima-aldaketa eta trantsizio energetikoa ardatz dituenekoan, herritarrei galdetu zitzaion klima-aldaketaren aurka borrokatzeko neurriekin ados dauden eta ea neurri horiek gure bizi-kalitatea

hobetzen lagun dezaketen uste ote duten.

Kasu horretan, inkestatutako biztanleriaren % 83 erabat edo nahiko ados dago. % 13k adierazi du oso ados ez dagoela edo batere ados ez dagoela.

### Klima-aldaketaren aurkako borroka inguruko jarrera orokorrak

2024an egindako inkestan, “Klima-aldaketaren aurka borrokatzeko neurriek gure bizi-kalitatea hobetzen lagun dezakete?” galderari emandako erantzunen %.



## KLIMA ALDAKETA

2023an, Euskadik 17 milioi tona CO2 isuri zituen, hau da, isurketak % 33 murriztu ziren 2005eko oinarri-urtearekin alderatuta. Joera horri eutsiz gero, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Euskal Legeak 2030. urterako ezarri duen helburua erdietsiko genuke. Energiaren azken kontsumoan energia berriztagarrien kuota % 20,4koa izan zen 2023an, eta Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legearen 2030eko helburua % 32ra iristea da.

## URA

Euskadin, gutxi gorabehera, azaleko ur-masen % 50 eta lurpeko ur-masen % 90 egoera onean daude. Bilakaera egokia da, baina motela, batez ere, ibai eta estuarioei dagokienez. Beharrezkoa da ur-masa horien ingurumen-helburuak betetzeko neurriak garatzeko ahalegina areagotzea. Neurri horiek plangintza hidrológicoan jasota daude.

## AIREA

2023an, egunen % 91 inguruk airearen kalitate 'ona' edo 'oso ona' izan zuten, % 6k 'hobe daitekeen' kalitatea eta % 3ek 'txarra' eta 'oso txarra'. Partikulen (PM10) urteko batez besteko kontzentrazioa jaitsi egin da, eta Europako batez bestekoaren azpitik dago.

## LURZORUAK

2000. urteaz geroztik, 1.465 hektarea lurzoru berreskuratu dira, kutsatutako 1.584 lekutatik. Lurzoruaren artifizializazioari dagokionez, joera egonkortu da.

## BIODIBERTSITATEA

Natura 2000 Sareak babestutako 55 eremu ditu Euskadik, guztira 1.659 km<sup>2</sup>-ko azalera dutenak, hau da, azalera osoaren % 23 (EB, % 18,6). Hegazti arrunt ugaltzaileen kontserbazioari dagokionez, nekazaritza-inguruneekin lotutako hegaztien populazio-beherakada izan dute, eta baso-eremuetako eta hiri-eremuetako hegaztien, berriz, populazioa handitu dute.

## EKONOMIA ZIRKULARRA

2005. urteaz geroztik, materialen etxeko kontsumoa nabarmen jaitsi da, ekonomia haziz doan inguruabarretan.

## HONDAKINAK

2018tik % 54 murriztu dira zabortegean amaitzen diren hondakinak. Euskadiko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030. urterako Planaren helburua lortuko badugu (% 85eko murrizketa), 1,1 milioi tona balorizatu beharko dira.

## EKONOMIA ETA INGURUMENA









Euskadik desparekotasun nabarmena du BPGd-aren eta ingurumen-adierazle nagusien artean, hala nola BEGen isurien artean. Fiskalitate berdea areago landu behar da, Euskadin BPGd-ren % 1,5 baita, hau da, EBko %2ko batez bestekoaren azpikoa.

## HERRITARRAK ETA INGURUMENA

la euskal herritar guztiek nabarmendu dute ingurumena garrantzitsua dela bizikaltatearen mailan. Gainera, herritarrak nahikoa ados daude klima-aldaketari aurre egiteko neurriekin.



# Adierazleen laburpena

Adierazlea	2015	Azken datua
Berotegi efektuko gasen guztizko isurien indizea (2005)	 <b>76</b> BEGen guztizko isurien indizea	<b>67</b> BEGen guztizko isurien indizea (2023)
Egoera onean dauden azaleko eta lurpeko ur-masak	 <b>% 53</b> egoera onean dauden ur-masak	<b>% 56</b> egoera onean dauden ur-masak (2023)
Airearen kalitatearen indizea	 <b>% 83</b> kalitate oneko edo oso oneko egun-kopurua	<b>% 91</b> kalitate oneko edo oso oneko egun-kopurua (2023)
Kutsatuta egon daitezkeen eta berriz erabiltzeko berreskuratutako diren lurzorua (2010etik)	 <b>944 Ha</b> berreskuratuta	<b>1.465 Ha</b> berreskuratuta (2022)
Babestutako eremuen kopurua	 <b>42</b> babestutako eremu	<b>55</b> babestutako eremu (2018)
Materialen etxeko kontsumoa biztanleko	 <b>11</b> tona biztanleko	<b>10,5</b> tona biztanleko (2022)
Zabortegetan amaitzen diren hondakinak	 <b>2.573kt</b> hondakin (2018ko datuak)	<b>1.186kt</b> hondakin (2023)
Ingurumen-zergak	 <b>1.112.529</b> mila euro	<b>1.284.051</b> mila euro (2022)



**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

INDUSTRIA, TRANTSIZIO  
ENERGETIKO ETA  
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y  
SOSTENIBILIDAD